





IDAZMENA ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Ebaluazio-irizpideen azalpena

Hizkuntza idatzia ebaluatzeko irizpideak hiru bloketan antolatu dira:

- Komunikazio-egoerara egokitzea (Gaitasun Soziolinguistikoa)
- Koherentzia eta kohesioa (Gaitasun Diskurtsiboa)
- Morfosintaxia, lexikoa eta ortografia (Gaitasun Linguistikoa)

1. Komunikazio-egoerara egokitzea. Gaitasun Soziolinguistikoa.

Egokitasuna propietatearen bidez testua komunikazio-egoerarekin eta testuinguruarekin lotzen da. Hala, testuak komunikazio-egoeraren parametroak islatzen ditu: solaskideen jarrera, komunikazio-asmoa, ekoizpen- eta harrera-kanala... eta horiek testuari dagokion hizkuntza-erregistroaren ezaugarriak markatzen dituzte. Halaber, testua komunikazio-egoerak eskatutako gaiari lotzen zaio.

Hauek dira egokitasunarekin zerikusia duten adierazleak:

- **Helburua.** Ea atazan proposatutakoa errespetatzen den ala ez: deskribatzea, kontatzea, azaltzea, argudiatzea.... eta ea item-eko agindua betetzen den (narrazioa idatzi, albistea, gutuna...).
- **Gaiarekiko lotura.** Ea informazioa esanguratsua den emandako komunikazio egoerari erreparaturik eta ea ikasleek ekoitzi behar duten testu-generorako egokia den. Ea proposatutako komunikazio-egoera kontuan izanik, informazioaren kantitatea nahikoa den eta kalitateari begira esanguratsua den.
- -**Hizkuntza-erregistroa.** Ea erabilitako hizkuntza-barietatea (formala, ezformala...) ondo egokitzen zaion proposatutako hizkuntza atazari.
- -Testu-generoari dagozkion beste zenbait adierazle: objektibotasuna/ subjektibotasuna, igorlearen eta hartzailearen agerpena testuan, aditz pertsonari eustea... (ezaugarri hauek balioetsiko dira beti ere eskatutako testuan esanguratsuak badira).

2. Koherentzia eta kohesioa. Gaitasun diskurtsiboa.

Koherentzia propietatearen bidez testua, oro har, zentzu-unitate gisa antolatzen da. Informazioaren aukeraketan eta horren antolaketan egitura jakin bat ikusten da. **Kohesioa** propietateak biltzen ditu testuko informazioaren arteko loturak ahalbidetzen dituzten hizkuntza-mekanismoak. Mekanismo horiek, batez ere, bi motakoak dira: morfosintaktikoak eta lexikoak.

Hauek dira koherentziarekin eta kohesioarekin lotutako adierazleak:

- -Informazioaren garapena eta koherentzia. Ea informazioa modu esanguratsuan aukeratzen den, eta ea ez dagoen kontraesanik, alferrikako errepikapenik, betelanik... eta ideiak eta datuak modu logikoan garatzen diren.
- **-Testu-egitura.** Ea eskatutako testuaren egitura errespetatzen den: narrazioa, deskripzioa...
- **-Kohesio-mekanismoak.** Ea testuko atalak ongi lotzen diren, testu lokailu eta antolatzaile egokien bidez, erreferentea galdu gabe, gaiaren garapena bermatuz.

3. Morfosintaxia, lexikoa eta ortografia. Gaitasun Linguistikoa.

Gaitasun Linguistikoa propietatearen bidez testua arau gramatikaletara egokitzen da. Arau morfosintaktikoen eta ortografikoen erabilera zuzena eta lexiko egokiaren erabilera dira irizpidea nagusiak.

Hauek dira adierazleak:

- **-Morfosintaxia.** Ea egitura morfosintaktiko zuzenak eta askotarikoak erabiltzen diren.
- -Lexikoa. Ea eskatutako gaiari ondo egokitzen zaion lexikoa erabiltzen den.
- -Ortografia. Ea hizkuntzaren oinarrizko ortografia arauak errespetatzen diren.

AZALPENEZKO TESTUA

Koaderno honetan bi testu idatzi behar dituzu: lehendabizikoa luzea izango da eta bigarrena laburragoa. Mesedez, jarraibideak arretaz irakurri.

45 minutu izango dituzu proba osoa egiteko.

Kontuan eduki:

- IDATZI BAINO LEHEN erabaki zer idatziko duzun eta nola antolatuko dituzun ideiak.
- IDAZTEN DUZUN BITARTEAN zaindu idazkera, testuaren txukuntasuna eta ortografia.
- AMAITUTAKOAN berrikusi testua.

GAZTEEN ARTEKO HARREMANAK ETA SARE SOZIALAK

Datuek diotenez, gazteen artean %50 baino gehiago egunero sartzen dira sare sozialetan (Facebook, Tuenti, Twitter...), eta horien bitartez jartzen dira harremanetan beste pertsona askorekin; hori al da zure egoera? Izan ala ez izan, idatzi azalpenezko testu bat ikastetxeko aldizkarirako esplikatuz zein den sare sozialen eragina gaur egungo gazteen arteko harremanetan. Jarraian agertzen diren galderak eta irudiak zure lana egiten laguntzeko dira, nahi baduzu erabil ditzakezu.



- Zeintzuk dira sare erabilienak?
- Zergatik dira sare sozialak hain erakargarriak gazteentzat?
- Zeintzuk izan litezke sare sozialen arriskuak?
- Gaur egun, sare sozialak beharrezkoak dira lagunak egiteko, edo lagunekin harremanetan egoteko?
- Nola konektatzen dira sare sozial horiekin (ordenagailuz, telefonoz...)? Noiz?
- ...





Zure azalpenezko testua idazterakoan kontuan eduki:

- Lehendabiziko paragrafoa zure azalpenaren sarrera edo aurkezpena izango da.
- Hurrengo paragrafoetan gaia garatuko duzu.
- Amaitzeko konklusio bat idatzi.
- 150 hitz idatzi behar dituzu gutxienez.

AZALPENEZKO TESTUA: ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

	0	1		3	4	5
	•	Testuaren helburua:	Testuaren helburua:	Testuaren helburua:	Testuaren helburua:	Testuaren helburua:
KOMUNIKAZIO-EGOERARA EGOKITZEA (Gaitasun soziolinguistikoa)		Ez da azalpenezko testua. Gaiarekiko lotura: Testuak ez kontuan hartzen eskatutako gaia. Ez du informaziorik ematen edo ez dago garaturik. Hizkuntza-erregistroa Guztiz desegokia da. Lagunarteko erregistroa nagusitzen da. Objetibotasuna: subjektiboa da.	Testua ozta-ozta sailka daiteke azalpenezko testutzat. Gaiarekiko lotura: Testuko datuak eta informazioa eskasak dira, ez daude garaturik, eta ez dira gaiari lotzen erabat. Informazio gutxi ekartzen du. Hizkuntza-erregistroa Erregistroa ez da egokia; ez -formala izan liteke. Objetibotasuna: ez da objetibotasuna kontuan hartzen. 1. ps agertzen da justifikatu gabe.	Testua azalpenezkoa da. Gaiarekiko lotura: Testuaren informazioa eta datuak, oro har, gaiari lotzen zaizkio. Ematen duen informazioa pertinentea da nolabait. Hizkuntza-erregistroa Erregistro formala da oro har. Objetibotasuna: testuak objektibotasunarer asmoa erakusten du, nahiz eta iritziren bat ageri. Gehienbat 3. ps. erabiltzen da.	Testua azalpenezkoa da. Gaiarekiko lotura: Informazio nahikoa ematen du, eta ondo lotzen zaio gaiari. Informazio hori pertinentea da. Hizkuntza-erregistroa Testua erregistro formalean eta egokian	Testua azalpenezkoa da garbi. Gaiarekiko lotura: Informazio ugari dago eta esanguratsua. Oso ondo lotzen zaio gaiari. Hizkuntza-erregistroa: Testua erregistro formalean eta egokian idatzita dago, hartzaileari egokituta eta testuingurua kontuan izanda. Objetibotasuna: testua objektiboa da eta 3. ps. erabiltzen da.
KOHERENTZIA ETA KOHESIOA (Gaitasun Diskurtsiboa)	29 hitz baino gutxiago dituen testua, ez du zentzurik edo dituen ezaugarriengatik, oso testu eskasa da, ezin da baloratu	ez da ondo ulertzen. Testuaren egitura:	koherentzia: Informazioak, oro har, ez du aurrera egiten, errepikakorra baita. Ideiak ez daude modu logikoan antolatuta. Testua akasduna edo osatugabea da. Testuaren egitura: Azalpenezko testuaren egitura ozta-ozta du, edo atalen bat faltan du (konklusioa esaterako). Egitura hori nahasia izan daiteke. Testua oro har, ez dago	Informazioaren progresioa eta koherentzia: Informazioak, oro har, aurrera egiten du. Ideiak eta datuak era logikoan antolatzen dira. Testuak badu osotasuna. Testuaren egitura: Azalpenezko testuaren egitura du: sarrera, garapena eta konklusioa. Testuko ideiak edo atalak oinarrizko era batean antolatuta daude. Paragrafoak erabiltzen dira, Testu antolatzaileak eta lokailuak Oinarrizko antolatzaileak ageri dira eta zenbait lokailu.	Informazioaren progresioa eta koherentzia: Informazioak aurrera egiten du era egokian; ideiak eta datuak era logikoan daude antolatuta, inkoherentziarik gabe. Ideiak ez dira errepikatzen eta informazio berria agertzen da. Testuak osotasuna du. Testuaren egitura: Azalpenezko testuen egitura garbi antzematen da: sarrera, ideien garapena eta konklusioa. Testuko ideiak edo atalak paragrafotan antolatuta daude. Izenburua izan dezake. Testu antolatzaileak eta lokailuak Testu antolatzaile eta lokailu batzuk ageri dira.	Informazioaren progresioa eta koherentzia: Informazioak aurrera egiten du oso era egokian; ideiak eta datuak ez dira errepikatzen, beraz, informazio berria eta esanguratsua agertzen da. Informazioan inkoherentziarik ez dago; era logikoan eta hierarkizatuan dago antolatuta. Testuak osotasuna du. Testuaren egitura: Azalpenezko testuen egitura agertzen da garbi: sarrera, ideien garapena eta konklusioa. Eta atalak garaturik daude. Testuko ideiak edo atalak paragrafotan daude antolatuta eta paragrafo bakoitzak ideia bat garatzen du. Izenburua du. Testu antolatzaileak eta lokailuak Testuan antolatzaileak eta lokailuak ageri dira.
MORFOSINTAXIA LEXIKOA, ORTOGRAFIA (Gaitasun Linguistikoa)		Morfosintaxia: Mota guztietako akats morfosintaktikoak egiten ditu (deklinabidean, sintaxian) ulergarritasuna zailduz. Esaldi bakunak edota amaitu gabekoak. Lexikoa Eskasa, zehaztugabea eta ez-egokia; oso lexiko pobrea. Hitzak errepikatzen dira eta edozertarako hitzak erabiltzen ditu. Akats lexikoak daude eta erdarakadak ere bai. Akats lexikoak egiten ditu. Ortografia eta puntuazioa Akats ortografiko eta puntuaziozko asko; testua ulergaitza egiten da zenbaitzuetan.	Komunztadura eta gainontzeko arau gramatikalekin akats nabarmenak daude. Perpaus bakunak erabiltzen ditu. Lexikoa Ez da zehatza, pobrea baizik. Hitzak errepikatzen dira eta edozertarakoak erabiltzen ditu. Akats lexikoak daude. Erdarakadak ager daitezke. Ortografia eta puntuazioa Akats ortografikoak ageri dira maiz, eta puntuazio zeinu batzuk gaizki erabiltzen ditu (hitz larriak, komak eta puntuak,	Morfosintaxia: Ez dago oinarrizko akats morfosintaktiko askorik. Komunztadura eta gainontzeko arau gramatikalak betetzen ditu oro har. Perpaus elkartu eta menpekoak erabiltzen ditu. Lexikoa Egokia da eta gaiarekin lotuta dago. Ez daude errepikapen askorik edo edozertarako hitzik ere. Erabilitako hitzak zuzenak dira. Ortografia eta puntuazioa Akats ortografiko gutxi ditu eta ez dira oinarrizkoak. Puntuazio zeinuak nahiko egoki erabiltzen ditu: hitz larriak, komak eta puntuak, parentesiak	Morfosintaxia: Ia ez du akats morfosintaktikorik egiten. Komunztadura eta gainontzeko arau gramatikalak betetzen ditu. Perpaus elkartu eta menpekoak erabiltzen ditu, eta ondo oro har. Lexikoa Egokia eta anitza da, eta gaiarekin bat dator.	Morfosintaxia: Ez du akats morfosintaktikorik egiten. Komunztadura eta arau gramatikalak ondo betetzen ditu. Perpausak erabiltzen anitza da. Lexikoa Hitz zehatzak eta egokiak erabiltzen ditu. Lexiko aberatsa da hein batean. Teknizismoak ere erabil ditzake (Tuenti, sarea) Ez daude akats lexikorik, edozertarako hitzik edo arrunkeriarik. Sinonimoak eta hiperonimoak erabiltzen ditu modu kontzientean. Ortografia eta puntuazioa Ez du akats ortografiko larririk egiten. Ongi erabiltzen ditu puntuazio zeinuak.

ERANSKINA: arau orientagarriak

HIZKUNTZA GAITASUNA: GRAMATIKA, ORTOGRAFIA, PUNTUAZIOA

Akatsen balorazioa gramatika arloan:

Datozen akatsak oinarrizkoak dira, hortaz, sistematikoki errepikatzen badira, akatsa larria da:

- Ergatiboa gaizki erabiltzea: "Ni esango dizut", "Nik hasi naiz lanean"...
- Aditzaren komunztadura ez errespetatzea: "Gizonak ikusi dut", "Liburu batzuk erosi zuen".
- Denbora-nahasketa handiak: "Etorriko bazina etxera joango gara", "Joango behar du".
- Ordena oso gaizki jartzea: "Ez nahi du etorri", "Daukat etxe bat mendian", "Alokatzeko baserria da gehiegi".

- ...

Errakuntza morfosintaktiko bakan batzuk onargarriak badira ere, akats larriak sistematikoki egiten baditu edo, sistematikoki izan gabe, puntu desberdinetan behin eta berriz huts egiten badu, 2, 1 edo 0 mailetan kokatuko zaio.

Akatsen balorazioa ortografia arloan:

Ikasleek idazlanetan egiten dituzten akatsak era askotakoak izaten dira: batzuk munta handikoak edo "larriak" eta beste batzuk ez hain larriak edo garrantzi gutxiagokoak. Arinak ez dira kontuan izango (esaterako, teknizismo bat gaizki idatzita egon...)

Oinarrizko arau ortografiko eta maiztasun handiko hitzetan egiten direnak akats larritzat hartuko dira. Maiztasun urriko hitzetan edo egitura sintaktiko konplexuago edo bitxiagoetan egiten direnak ez dira normalean hain garrantzitsuak.

Ondokoan idazmenean behinik behin larritzat jotzen diren hainbat akats ematen dira, adibide gisa:

- Erabilera handiko hitzetan egiten diren akatsak larriak dira beti, hala nola aditz laguntzaile formetan S agertzea ("nais"...), tx, ts, tz daramaten hitz ezagunak gaizki idaztea ("etzea"...)
- Aldiz, beste zenbait huts txikitzat joko dira: erabilera urriko hitzen ortografia ("h"ak bereziki) edota gaztelaniak eragindako akatsak (m p aurretik, v...)
- Letra larrien erabilera okerra.

- ..

Akatsak urriak eta ez larriak direnean 5, 4 edo 3 mailetan koka daiteke idazlana. Kontuan izan akats berbera bakartzat kontatuko dela.

Akatsen balorazioa puntuazioan: Gutxienez, marka hauek agertu beharko lirateke:

- Paragrafoen amaieran puntu joan behar da, baita ideia bat duen esaldi baten amaieran.
- Harridura eta galdera ikurra edo zeinua ipini behar dira, behar direnean.
- Koma ohiko erabilpenean jarri behar da: zerrendetan, kontaketaren haria eteten denean, aposizioetan...
- Erabiltzen direnean, ondo erabiltzea: komatxoak, parentesiak eta gidoiak.

Kontuan eduki, akatsak oso ugariak ez direnean, 3. mailan ahal dela kokatu.

IKASLEA:

IDAZMENAREN EMAITZAK JASOTZEKO TXANTILOIA

DATA:							
	ADIERAZLEAK	0	1	2	3	4	5
1.	KOMUNIKAZIO-EGOERA EC	30K	ITZE	A (Gait	asun Soz	iolinguist	ikoa)
-	Testuaren helburua / Gaiarekiko						
	lotura						
-	Hizkuntza -erregistroa						
-	Objektibotasuna gaiaren						
	garapenean						
2.	KOHERENTZIA ETA KOHESI	OA (Gaita	asun Di	iskurtsibo	oa)	
-	Informazioaren progresioa eta						
	koherentzia						
-	Testuaren egitura						
-	Testu antolatzaileak eta lokailuak						
3.	MORFOSINTAXIA, LEXIKOA,	ORT	OGF	RAFIA	Gaitasun	Linguisti	koa)
	•			·	•	J	,
-	Morfosintaxia						
-	Lexikoa						
-	Ortografia						

HASIERAKO

MAILA

ERDI

MAILA

MAILA AURRERATUA

ADIBIDEAK

100
1000

Gai	u egon, sare sozialak	gazteen artean dabietzat	e. Gazle guzliok mobilo		
daukagunez, haiei Konekhatuta egoten gara egunera.					
Gai	uzaguztiakbezalac	ndorio onah da txam	ak ekarben ditu hamet	5	
Zer ba	it) et dakigunean edo.	. nadmaitekin . Komunika	tzeko oso bide azleanu		
.izaten.	data sore sozialak.B	aina gazte askok, gain	rdasun bat izan ahal		
.dute	ezin dutelako mugikora	ariK gabe (bizta) bizi e	eta hori gedatzen de	itov	
.psiKolo	gora joatea isaten da	.onera, mobilaz ela se	are sozialetar pixKa b	<i>t</i> s	
.ahaztek	•				
Hx	Ainbat molalako sare.	.sozolak daude, mok	a askolakoak, erobilin	<u>}(c</u>	
desberd	in balzvetakoak Gazle	en attean gelien en	abiltan direnak Tuenti	y······	
1	eta WhatsApp izate	•	~ .		
erec	isko erabiltzen da				
<i>N</i> i	re urtez, Sare sozialak	edukitzeo ondo irua	ditan anit bakaitaak.	bone.	
burna.	Kontroletzen badu. Ber	dan, zerbait idalzi er	do argazki bat ipini		
boino.	lehen pentsatu egin	behar da jende guz	tia ikusta duelako e	ba	
pos.	050 garantzitua do	Best cause incords	andarikara bat da	Ontawok	
	•	•			
•	n. atzetk ibiltzea., h				
seme.	-alobok, baina beti	bera.engan Konfia	intza demostratzen	•••••	
		••••••		•••••	
		••••••		•••••	
				•••••	
		154			
	Gaitasun Soziolinguistikoa	Gaitasun Diskurtsiboa	Gaitasun Linguistikoa		
	1	5	5		

^{4 5 5}

[√] Helburua betetzen da.Erregistroa egokia da. Akatsa du objetibotasunean, zenbait kasutan 1. pertsona erabiltzen baitu; horrek puntuazioa apaltzen dio.

[√] Informazioa esanguratsua da,eta aurrera egiten du. Koherentea da testua.

Oro har, ondo idatzita dago. Lokailuak ondo erabili ditu, ez daude akats nabarmenik eta lexikoa oso egokia da.

2

Kairo! Oricko Henri Lkaddako DB42-Ko ekade bot nave Testu haren buitartes
asabu nahiko nuko gasteen arteko harramanotan ndako eragira shukatan sare
Sperialet. Gehienbod nive advaka jarta asterbuko dut (13-14 utt bitartekoa)
adin hontako gasteek gohien erabiltan dutan sane sasala tuuti "bren hauxe
bara azalduko dut
Lehenik eta behin, gasteen harramanderhitz egin aurzetik erango nuke
questi hanan atraan harkunha botdogooda. Bahian bat erabilpan tramanon erredun
gurasak i eaten dixela Monogalik arasoa ez da gasteera baisik eta gurasana
ete gisarteano. Gisartea aipatea dud influentria handia dankalako, Tuenti es
bodusu hamarra sara. Gairara, santzusko gurasak bodituzu 14 surte arte
ez distre ersten egiten, nan bitartean sur baugust 11. utorekin barren Orain.
do pare but wite, suc sons admi neut & salvisos sucz stru tod sugar sucz
Acorbait guranok esatur Lite errengos sob Kontrolesos Orain benisia
derek mobila butate "nooki 36-rekin, quiacontrol sui beca do, oso errar
cakutatien bait de laboaren aarian Baira nik dist: to mabila ea badiste eroten araza haud sahiestukie stan! Hau gustiaa arazte ge argankien arazoa daga,
ez direlako konstiente ez igoten duta. Baaterkatan ere hanakin da hot, puntu
deuch red nago attitutuses oce ato einan stabilismi solde ins eithin anda
sho general soul Arang allog witeres als
Benog girante have allow bottom bottom dogo et Kanhunte botton degu
gosteen erakilpan trama es dela barain erru, baixik eta guranoak, irakarlak.
199

Gaitasun Soziolinguistikoa	Gaitasun Diskurtsiboa	Gaitasun Linguistikoa
2	4	4

[√] Testua ez da objektiboa eta erregistroa ere ez da oso formala. Hori garrantzitsua da, azalpenezko testuetan oinarrizkoa hain zuzen, horregatik ez du erabat helburua betetzen (nahiz eta azalpen bat eman eta gaiarekin lotuta egon).

[√] Testuko informazioa aurrera egiten du, errepikapenak agertzen badira ere. Sarrera eta konklusioa agertzen dira, eta ideiak paragrafoetan daude azalduta. Lokailu egokiak ageri dira ("Lehenik eta behin", "Beraz"...)

[√] Egoki dago idatzita. Nolanahi ere, akats morfosintaktikoren bat agertu da (ikusi, esaterako, azkeneko esaldia). Hiztegia, aberats samarra da.

W. J.		AZALPENEZKO TESTUA		
# N 2 0 0 2 2 2 2 2 2 2 2 2 2 2 2 2 2 2 2		Sane 20Zialak		
Sane 2021'alak	Java egu	n 020 "intertante	uk" dina pertroma	
* *			· bat izatemda,	
ondu eleko e	maten dit	vetelako haietan,		

		iak Sina gazteem		
highetan fai	udeloko Zu-	re etreean, jala	pak dituztelako,	
Zevne Gizitze	in Zen ge	entatrem Zalaum 6	ezteek jakiteko	:
Havet dona knab	Miemak: 7	venti, twitten	of Facebook.	
		ak azko dinoi ji		
			kitea, jendeaneki	y.
			el inakuntêra zeun	
gauzak etc	beste g	auza azko. Sa-	e 2021ale Kim jem	dech
			, logunelein honorm	
			gio. Egic do home.	
allertzen din	elo eto Ka	onfidontac goltae	n hosten zara.	a
			tora ordenogalles	
			nektoluto egoteko.	
Nine uster zon	e 20 7 ido K 7	bronch dina loguneki	in honemore gollen	
			en kondidontro gottoe	
hazi zaneloko et dino, jendeak	a ez zono ho	oin 1Cy alois ho	negotik Kendu behan	3
Gaitasun So	ziolinguistikoa	Gaitasun Diskurtsiboa	Gaitasun Linguistikoa	
	3	4	4	

[√] Helburua betetzen da. Azalpenezko testua da, nahiz eta bere aburua ere sartu. 2. pertsona lar erabiltzen du, eta horrek eragina du erregistroan (ez formala). Gaia ondo garatzen da.

[√] Ideiak eta datuak ondo samar daude antolatuta, nahiz eta baten bat errepikatu. Testua paragrafoetan antolatuta dago; sarrera eta konklusioa dago. Testuak izenburua dauka.

[√] Ez daude akats larririk. Puntuazioa ondo dago.

Wik Janice dut izena eta gazteen arteko barremanol
eta Sare sozialak azalduko ditut.
Gazteek ez dira Komunikatzen gutunen bidez,
ocain Sore sozialen bidez Komuni Kotzen dien.
Gazteen harremanak erok dira baida batzuetan
gende matteurs edo gaistes santen de zurchin
hitz egiteka edo anenatzatzeko.
Beste aldetik asko gustatzen zaizkit eta
la egun sann egeten gara sartuta gende pilo.
Cre bas gozte botank sare sozialetaz bidez
gausa trasport egiten eda esaten d'aute eta
har txarto sentitzen eta min egiten alzu
Gero ere doude pertsono botaux jende
askerekin dartzen dela harremanetan, eta
abtició beste puntatión bisaltaen distituda.
barremanak. Lehenik oso majua paina geno
atzetik pertsona desberden bodekin topat sen
duau.
Eta gurasaek horredaz beldur bute
Nice ustez, soak dica sareak baina batzuetan
govan txarrax gertatu ani dira
124 hitz.
Total Committee

Gaitasun soziolinguistikoa	Gaitasun Diskurtsiboa	Gaitasun Linguistikoa
2	3	2

[√] Azalpenezko testua bada ere, eta gaiari loturik badago egon, erregistroa ez da oso formala, eta ez da objetibotasunaren xedea betetzen ("Nik..." batez hasten da eta 1. pertsona erabiltzen du).

[√] Ideiak eta datuak egokiak izan arren, errepikatzen dira; informazioa ez da oso pertinentea, subjektiboa izan ere, eta ez dago oso ondo antolaturik. Nolanahi ere, gutxieneko koherentzia eta kohesioa gordetzen dira. Lokailuak agertu arren, batzuk gaizki erabili dira (ere bai, eta...)

[√] Sintaxia oso oinarrizkoa da. Hiztegia eskasa; hitzak errepikatzen dira (harremanak, txarra, ere...) Akats ortografiko eta gramatikal batzuk agertzen dira.

CA

Interneten sore erobilenak dirastuenti, tacebook, twitter								
Baina ni balanni enabiltzen dut bi honiek correco begitatzea								
≡ eta lo	nak egitea. Nire	Klaseko lagunak	sauva gehiago					
7 doella	te.\$		-					
.Gehien	ak sare soziala	aska dande eta	horiproblema					
.osko.d	bgo.odibidez:cibe	urbulha hitzegiteo	narboit ez					
dockizu	norden							
Sorre	ozialak ez diro	be behar best	e moder potsuk					
daude	hitzestea.							
Batzuet.	han Konoktatzen d	ica. io rdenaga ilui	z,mugikorna,vuji.					
2 Liverto	El. Etxelan, Klase	on, ledkinginztie	dan. Konektatzen					
odino								
	Gaitasun Soziolinguistikoa Gaitasun Diskurtsiboa Gaitasun Linguistikoa							
	2	2	1					

[√] Helburua ozta-ozta betetzen da. Azalpenezko testua izan arren, eta gaiari nolabait eutsi, erregistroa ez da egokia. Informazioa urria da.

 $[\]sqrt{}$ Ideiak eta datuak sakabanatuta agertzen dira; ez dago osotasunik. Testua ez da ondo ulertzen.

[√] Akats asko daude, morfosintaxian bereziki, eta baita ortografian ere. Horren ondorioz, ulergarritasuna eragozten da. Lexikoa eskasa da.

2

Orde detu	Eacelook, Tuente eta Truter sare lat da eta Ordenagailuan dago Gazte guztiok utilizatzen ditugu. Eacelook, Tuente eta truter oso famotu ak dira, dauka aso visita tonto.							
	een artean %.		igo eraleitzen	Lugu				
	erabelienak Eac		i eta Trutor d	ŵ.a				
	otik Komunikat		•					
_			•	'ımA				
	someolen annisk	MMIN. AUMULISCM	I.a. DIALONIA	vig,				
	dur, etc	a						
· lear.	gaur egungo si	one sopralak lel	harrerkoa dua la	gunak				
egite	Ko eta logunei	an harreman	netan egoter	60				
0 5000	e social have	C mormalean	ordenagaile	Æ				
	۸ .		O .					
****************	edo telefonoz Kanektatzen dura							
Eaceleook, Tuenti et a Truter oso ondo dogo								
XXXII.	LEC MULI GUSTATEM FAIT							
	Gaitasun Soziolinguistikoa Gaitasun Diskurtsiboa Gaitasun Linguistikoa							
	2	1	1					

[√] Helburua nekez betetzen da, nahiz eta, azken finean, azalpenezko testua izan. Erregistroa ez da formala, eta ez da objetibotasunaren xedea betetzen (ikusi bukaera).

[√] Ideiak eta datuak nahasiak agertzen dira; zenbaitetan ez dira ulertzen. Testua ez da oso koherentea. Ez dago kohesio handirik. Osotasuna galdu da.

[√] Akats gramatikal ortografikoak eta sintaktikoak daude, ulergarritasuna eragozteraino. Hiztegia urria da eta akasduna da; erdarakadak daude.